

2003ko uztailaren 3a • XXIII. urtea



Irantzu Izeta
Xauliko arduraduna

03

Lau urte ditu lanean Xaulik Baztanen. Argibide programako ekitaldi ezberdinen banean, «Biak Bat» aldizkaria argitaratu du Baigorriko gazte bulegoarekin batera.



Iñaki Eskudero
Asegarcera

28

Hogei urteko esku pilotari eratsundarrak lau urteko kontratua sinatu du Asegarce enpresarekin. Afizionatutan herriarteko txapelketa irabazi berri du Baztanekin.

04

Elizondoko San Fco. Javier ikastetxeak 25 urte



PRESTATU ZURE IBILGAILUA UDARAKO



Banarta, 2 • Alkaiaga industrialdea • LESAKA • Sarrera Beratik • 948 625 555



- Auto marka guzien konponketa • Seat, Audi, Volkswagen markatan espezializatuak •
- Txapa, pintura, mekanika eta elektrizitatea • Pre-ITV • Direkzioa eta klimatizazioa •



Berriro plazerri beste bat gehitu diogu:

Zure bainurako materialak batere kostatu gabe erosteko aukera izatea.

Aurrekontua eskatzen diguzunean zuk erosten dituzun komunak, griferia, zeramika estaldurak, mobleak eta osagarriak (6.000 € bitartean) dohainik ateratzen ahal zaizkizu.

Informa zaitez eta goza ezazu plazer berri honetat.

 **alkain**
zeramikak eta bainuak

C/ Amutalde, 21 • Hondarribia • Tel. 943 64 52 54
www.alkain.com

DATUAK...

• Duela lau urte hasi zen lanean Baztanen Xauli. Lehenik, ezinduen astialdian laguntzeko ekimena egin zen, eta gero, Gazteen Informazio Bulegoa.

• Aurten, Argibide proiektuaren barnean, Baigorriko Gazte-Bulegoarekin elkarlanean ari da. *Biak Bat* aldizkaria karrikaratu dute, harremanak sendotzeko helburuarekin.

• Etorkizunera begira, udalak zerbitzua bere gain hartzea nahiko luke Irantzuk, «bertze herrietan egiten den bezala».



Irantzu IZETA *Batzango Xauliko arduraduna*

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

«Baztan eta Baigorri arteko harremana berreskuratu nahi dugu»

Aitor AROTZENA

Noiz eta zein helburu nagusirekin sortu zen Xauli?

Duela lau urte sortu zen. Europatik bazen dirulaguntza bat eta deialdi horri erantzunez ekimenen bat egiteko ordua zela pentsatu genuen. Bi ekimen aurkeztu genituen: astialdiko ekintzak ezindu sikikoekin eta gazte informazio bulegoa.

Zein da gazte informazio bulegoak eskaintzen duen zerbitzua?

Bulegoan klase guzietako informazioa biltzen da. Informazio klase aunitz bada eta ez zaie gazteei ailegatzeko, bidean gelditzen da. Aukera aunitz, lanbide aunitz badira, baina jendeak ez daki. Xaulin informazio hortara ailegatzeko modua daukate gazteek. Nafarroan hainbat gazte informazio bulego zeuden, baina Baztan-Bidasoa aldean ez zen batto ere. Bulegoan ez ezik, ikastetxeetara ere halarazten dugu informazio hori.

Orai Baigorriko gazte bulegoarekin harremanean zaudete eta ekimen berri bat ere baduzue esku artean...

Baigorritik hurbil gaude eta egoera

«Gazte informazio zerbitzua Batzango Udalak seriotasunez bere gain hartzeko ordua da, bertze tokietan bezala. Bertzenaz, itxi egin beharko da»

iruditsuan bizi gara: bailara batean, gazteria herri ezberdinetan nahiko sakabanatua... orduan, harremanak bultzatzeko asmoarekin eta elkarrekin zerbait egiteko asmoarekin Akitania-Nafarroa protokolo horren barne zerbait egitea pentsatu ginuen. Argibide izeneko elkarlan proiektua aurkeztu genuen eta dirulaguntza lortu genuen proiektua gauzatzeko.

Egitasmo horren barnean, Biak Bat aldizkaria argitara eman duzue. Zer biltzen duzue aldizkari horretan? Argibide proiektuan hiru ekimen daude: informazioa elkar trukatea, ikastetxeekin lan egitea eta elkarrekin Biak Bat boletina ateratea. Hiru hizkuntzatan atera dugu, errealtatea kontuan hartuz eta bi ale eginen ditugu, bigarrena udazken aldera. Ikastetxeei dagokienez, ikasketa beka batzuk proposatu ditugu, bai Baigo-

rrin baita eremu honetan ere. Hemen ez du arrakastarik izan, baina Baigorri bi proiektu interesgarri egin dituzte. Batzuk Baztango armarriei buruzko lana egin dute, herriz herri ibili ondotik eta erakusketa batean gauzatu dute; bertze ikastetxeetako CD bat egin dute, Nafarroako herri ezberdinetako historian oinarrituta.

Geroari begira, zein etorkizun dauka Xaulik?

Hemen boluntario gisara ari gara, lau urte dira lanean, jende guziarendako zerbitzua eskainiz eta nolabaite-re udalaren aldetik inplikazio handiagoa nahiko genuke. Udaletik dirulaguntza bat eskuratzen dugu alokairua ordaintzeko, Nafarroako Gobernuak ere ematen du, baina gastuak handiak dira. Azkenean, diruan pentsatzen egoten zara eta zure egiazko lanean aritzeko denbora kentzen dizu. Horrelako zerbitzu batean hortaz bizi den langile bat egon beharko litzateke. Zerbitzua hobeki ematen zen eta ordua da Udalak seriotasunez bere gain hartzeko, Nafarroako bertze toki guzietan bezala. Bertzenaz, itxi egin beharko da.



ARGAZKIAK: AITOR

Isabel Ibarrola, San Francisco Javier ikastetxeko zuzendaria eta Trinitxu Ariztia eta Idoia Goñi irakasleak, 25. urteurreneko ospakizunen kariatara, ekainaren 14an ireki zen jolas parkean.

GARAI BATEAN BAZTAN OSOKO IKASLEAK BILDU ZITUEN

25 urte bete ditu Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeak

Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeak 25 urte bete ditu ikasturte honetan. Urteurrena gogoratzeko, zenbait ekitaldi egin zituzten ikasturte bukaerako aste hondarrean. Bere garaian, Baztan osoko ikasleak biltzen ziren ikastetxe honetan eta hortik hartu zuen konzentrazio izena. Orduan kasik 700 ikasle izatera ailegatu ziren. Gaur egun guttiago dira, gehienak Elizondokoak, baina baita eskolarik ez duten herri tailetakook ere.

Aitor AROTZENA

Ikasturte osoan buruan izan dute 25. urteurrena Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean, baina ikasturte akabaila arte ezin izan dute ospakizuna gauzatu, garai batean ikasle eta azken lau urteotan irakasle den Idoia Goñik aipatu digunez: «Ortziralean ikasleekin jokuak eta tailerrak egin genituen. Egun fuertea larunbata izan zen. Goizez ikasle ohiek dantzatutako Aurreskuarekin hasi ginen, txistua ere ikasle ohiek jo zuten eta gaur egungo ikasleek ere dantzatu zuten. Graffitiak egin zen, futbol partida Baztan futbol taldekoak gurasoen aurka... Gaur egun famatuak diren ikasle ohiak ekartzeko ere aprobe txatu genuen, Mikel Goñi, Otxandorena, Atxa... baita jolas parke berria inauguratzeko ere. Aste osoan ar-

gazki zaharren erakusketa egin zen eskolan, 25 urte hauetako oroitzapenak berritzeko».

BAZTANGO KONZENTRAZIO IZATETIK ELIZONDOKO IKASTETXE IZATERA

Gaur egun, Baztango haurrak beraien herrietan aritzen dira 12 urteak arte eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Lekarozen egiten dute. Horregatik, duela urte batzuetako kasik 700 ikasleetatik aurten 240 izatera pasatu dira, gehienak Elizondokoak. Halere, azken urteetan matrikulazio kopuruak goiti egin du A eta D ereduak eskaintzen dituen ikastetxe publiko honetan, Isabel Ibarrola zuzendariak erran digunez. Bere ustez, «kontzentrazioa zenean, balleko haurrek gehiago ezagutzen zuten elkar». Hori kinto bestetan somatzen du Idoia

Idoia GOÑI*Irakaslea eta ikasle ohia*

Irakasle izan aitzinetik ikasle ere izan zara ikastetxe honetan. Nola ikusten da eskola barreraren bi aldeetan?

Nik 25 urte hauek ilusio handiarekin hartu ditut. Nire urte politenak hemen pasatu ditut eta ilusioarekin hartzen duzu. Ikasle eta irakasle bezala arras ezberdina da. Ttikia zarenean irakasleak urrunago

ikusten dituzu eta orain zure lankideak dira eta arras ongi moldatzen gara. Lehendabiziko bizpahiru egunetan arraroa egiten zitzaidan, zure irakaslea zena zure lankidea izatea, baina ez da arazorik.

Lehenago eta oraingo ikasleen artean zein ezberdintasun somatzen dituzu?

Lehen eta orai, beti izan dira haur mugituak eta haur zintzoak. Gaur egungo haurrek gauza gehiago dituzte, guk ez genituenak. Igual guk gehiago baloratzten genituen gauzak, lortzeko zailagoak zirelako. Lehenago ez zen hainbertzeko hurbiltasunik, baina berdintsua da.

“Gaurko haurrek guzia daukate eta guk gehiago baloratzen genituen gauzak, lortzeko zailagoak zirelako”

Isabel IBAROLA*Zuzendaria eta irakasle*

Zeinezaugarri ditugu eta izan ditugu ikastetxeak?

Garai batean kontzentrazioa izan zenean Baztango herri guzietatik etortzen ziren, baina orai gehienak Elizondokoak dira. Erreformarekin batera, kontzentrazioa desagertu zen. Orain herrietan ikasten dute seigarren maila artio eta gero zuzenean Lekarozera joaten dira. He-

men ditugun haurrak Elizondokoak dira eta Baztanen badira bizpahiru herri eskola itxi zutenak eta handik etortzen dira, Berroeta, Aniz eta Lekarozkoak adibidez, edo baserrietan bizi direnak. 3 eta 12 urte arteko haurrak ditugu.

Horrek ikasle kopuruan ere eragina izan du...

600 ikasletik goiti izan zuen San Francisco Javier ikastetxeak aspaldian eta aurten 240 ditu. Dena den, azken urteetan matrikula kopuruak goiti egin du. 1980an D ereduan hasi ginen ematen eta hasieran guti ziren, baina orain gehienak eredu horretan ari dira, A ereduaren gero eta gutiago.

“Baztan osoko 600 ikasle izatera ailegatu ginen, orai ikasleak Elizondo eta eskolarik gabeko herrietakoak dira”

Trinitxu ARIZTIA*25 urtez irakasle*

25 urte hauetan zein aldaketa somatu dituzu?

Gure helburua beti neska-mutikoak hazi eta hezitzea izan da, baina erakusteko modua aldatu egin da, batez ere pedagogia metodoak orai politagoak dira. Ikasleak berdintsuak dira garai guzietan, baina lehen ikasgela bakoitzean haur gehiago zegoen. Nire semea sortu zelarik,

klasean 42 ume nituen, orain gehienez 19 daude. Orain elkartasun eta tratu handiagoa dago irakasle eta ikasleen artean. Konfidantza gehiago dago eta gehiago hurbiltzen zara ume bakoitzarengana, baita gurasoengana ere, hori da alde positiboa. Lehenago hainbertze ume zirenez, bazegoen maisu eta umeen arteko eskalo bat. Gurasoak ere etortzen ziren, baina gutiago. Orai gehiago arduratzen dira, aunitz aldiz etortzen dira eta giro hobea da. Konfidantza eta hurbiltasun horri neurria hartzea da zailena, ez dadila errespetu falta bihurtu.

“Elkartasun, konfidantza eta tratu handiagoa dago orai irakasleen eta ikasleen artean, baina neurria hartu behar zaio”

Goñik. Bera kontzentrazioan aritu zenez, Baztan osoko jendea ezagutzen duen bitartean, ikastolan ikasi zuten bere lagunek bakarrik Elizondoko jendea ezagutzen dutela dio. 25. urtereneko ospakizunen ondotik, heldu den ikasturtera begira daude San Francisco Javier ikastetxean, zuzendariak jakinarazi digunez: «Eskola polita dugu, batez ere patioak eta kirol eremuak. Beti badugu zerranda bat, hobetzen ahal diren gauzekin, hori ez da inoiz akitzen. Orai jolas parkea inauguratu dugu, erabat berria da. Orai duguna mantenduz, hobetzen joan nahi dugu. Heldu den ikasturtean Haur Hezkuntzan bertze gela berri bat izanen dugu, 3 urtekoentzat D ereduaren. Haur Hezkuntzan zazpi gela izatea helburu garrantzitsua da guretako, orai bortz ditugula kontuan hartuz».

ARGAZKI ALBUMA

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidente: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena.

Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskar Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugaramurdiako Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Male-rrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Zentzugabekeria

Harriduraz irakurri ditugu Jose Luis Etxegarai Lesakako alkate ohiaren adierazpenak. Adierazpen horietan Onini leporatzen dio bere taldeko zinegotzi baten botoa erosten saiatu izana. (...) Gezur eta faltsukeria hauek guztiak baloratu baino lehen, kronologikoki datu eta egintza batzuk aipatu nahi genituzke:

Ekainaren 9an Lesakako Batzokian bilera egin genuen EAJ/PNV-EAK eta Oninek udal berriaren egitura eta funtzionamendua adosteko. Bilera bukatutakoan, J.L. Etxegarai aitzinatu zigun 14an nobedade bat izanen zela eta, horrenbertzez, udala eratu baino 10 minutu lehenago egin genuen hitzordua. Karguen bateraezintasunarengatik alkateztari uko egiteaz ari zen. Ekainaren 10ean Zonaldeko Hauteskunde Batzordearen aitzinean uko egin zion zinegotzi karguari. Ekainaren 11rako EAJ/PNV-EAKoen eskutik zeuden zinegotzi guztien egiaztagiria, alkate ohiaren ordezkorena barne. Hurrengo bi egunetan telefono deiak izan ziren, eta purrustadak toki publikoetan. Traidoretzat hartu gaituzte, alkate ohia eta EAJ/PNV iraindu ditugula leporatu digute, etxex etxe banatu dugun idazkian oinarrituz. Idazki horretan hauteskunde en emaitzen balorazioa egiten genuen.

Udalak eratu ondotik hasi ziren arestian aipatutako adierazpenak agertzen komunikabideetan. Alkate ohiak ziurtatzen du ortziral arratsaldean (ekainak 13) bere taldeko zinegotzi batek erran ziola zein zen gure ustezko maniobra eta berehala uko

egin ziola zinegotzi izateari: Nola erraten ahal da tamaina horretako gezurra, bi egun lehenago uko egin baitzion zinegotzi karguari? Onin udal taldeak ukatzen ditu gezur horiek guztiak, hagitx larriak iruditzen baitzaizkio. Giberela egitea eskatu nahi diogu Lesakako alkate ohiari, gure taldearen irudia orbanik gabe gera dadin, susmo eta zalantza izpirik gabe alegia. Akusazio faltsu hauen aitzinean demanda judizial bat tartekatzeo eskubidea guretzat gordetzen dugu, akusazio horiek egin dituzten kaltea konpontzeko.

Kontakizun izan diren egintza eta egoerak ez dira existitu eta paranoia-tzat hartzen ditugu. Montaje honen arrazoiak aztertuz bururatzun zaigun zentzuzko azalpen bakarra da JL Etxegaraiaren plana ez zela alkate izaten jarraitzea, eta hautesleen aitzinean bere burua justifikatzeko modu bat behar zuela.

Bertzeen etika eta duintasuna zalantzan jarri aitzinetik, nork bere buruari begiratu behar dio, modu eredugarri batean jokatzek, are gehiago horrenbertze urtez ardura politikoa izan duenean eta Nafarroako Parlamentuan hautetsia denean. Azken urteetako udal kudeaketa erduari erreparatuz gero, harrokeria, larderia eta elkarriketa falta dira ezagugarri nagusiak erabakiak hartzerakoan. 16 urtez Lesakako alkatea izan dena eskaintzen ari den ikuskitzun penagarriarekin minduta gaude, huts egin ditugula sentitzen dugu.

Bukatzeko, gure lan-kideak diren EAJ/PNV-EAKo zinegotziei eskatu nahi dizuegu ez kontuan hartzea mamu zahar ho-

riek. Udal kudeaketan aro berri bat hasiera doa, elkarlanean eta elkarriketa etengabea. Guk, gure aldetik, ilusio handiz ekingo diogu lanari, behar handia baita.

ONIN Udal Taldea

Hauteskundeak gabe Beran. Normaltasuna?

Honako testu hau sinatzen dugunok, zu bezala, beratar batzuk gara, Berako Kultur Batzordeko zenbait kide, sentsibiltate eta ideia ezberdineko pertsonak. Ez gara alderdi politiko bat, ez talde egituratu bat, momentu konkretu honetan kezka berak arduratzen duen herritar multzo bat baizik:

Zer gertatzen ari da eta zer gertatuko da Berako Herriko Etxean?

Denok dakigu azkeneko hauteskundeetan talde bakarra aurkeztu dela udaletxera, inor gehiago ez. Eta ongi dakigu lan egiteko prest egon den talde bakar hau ilegalizatu dutela Alderdien Lege berriaren dela eta. Herritar auzinzen babesa lortu duten arren, ezin izan den guretzat lanean segitu. Galera haundia da hau gure ustez, orain arte Berako Udalean egon diren hiru taldeek beren sentsibiltate ezberdinetatik, elkarrekin lan egiteko gaitasun haundia erakutsi baitute.

Gure aldetik, kultur arloan egiten dugun gogoeta herriko bertze esparruetara hedatzeko beharra sentitzen dugu. Herriak momentu honetan bizi duen egoerari buruz hitz egiteko bildu gara, eta bertan hainbat galdera edo kezka sortu zaizkigu:

Zergatik osatu da zerrrenda bakarra 3.600 biz-

tanle dituen herrian? Udalera aurkezteak arriskua suposatzen duelako? Indibidualistak garelako? Bertze batzuek guretzat lan egiten duten segurtasuna dugulako?

Zer nolako herria nahi dugu? Herritar gisara, zer egiteko prest gaude? Zein da orain, eta zein izan daiteke gure parte hartzea herrian eta Herriko Etxean? Zer egin beharko litzateke Herriko Etxea ahalik eta zabalena izateko? Nola bideratu herriaren alde lan egiteko prest direnak?

Honekin lotuta, laister bere ibilbidea bukatuko duen udalbatzari eskerrak eman nahi dizkiogu, bere lana gogo onez eta ahal bezain ongi egiten saiatu dela pentsatzen baitugu. Hauetako batzuei ez diete bere lanarekin segitzen utzi. Bere ideiekin ados egon edo ez, egoera kezagarria dela uste dugu, herritar guztien parte hartzea behar baitugu. Zurea ere bai.

Hala ere, aitzinera jo behar dela pentsatzen dugu, irtenbideak bilatu, zuriak eraiki, elkartzen gaituenari lotu, eta ahaleginak egin. Guztion ideiak, iradokizunak eta proposamenak jaso nahi ditugu. Zurea egin nahi baduzu, idatzi uztailaren 4a baino lehen Berako 24. Posta Kutxara.

Zure esku, gure esku... Bera.

Ander Alzuri, Bittori Telle-txea, Blanca Esther Lasa, Blanki Etxeberria, Fernando Berasain, Gorane Artieda, Helena Kaperotxipi, Izaskun Abril, Jon Abril, Jon Zelaie-ta, Joxelu Berasategi, Koro Irazoki, Kristina Lasarte, Lourdes Alunda, Maria Agi-rre, Mari Carmen Alonso, Mari Sol Taberna, Pili Albis-tur, Txaro Zubieta.

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •




D. Noticias 2003-06-19

«Baztani buruzko topiko aunitz badaude, kontserbadoreak garela eta horrelako gauzak, baina ez diote errealitateari erantzuten eta hori erakusteko ordua dela iruditzen zait, ballearen bertz irudia ezagutarazteko ordua da, progresoa, modernitatea, etorkizunera, mundura eta ideiei zabalduta dela, seguru aski egiazkoagoa baita».

«Baztan herri handia da, beraz aukera aunitz baditu, baina baita behar aunitz ere. Dirulaguntzak banatzeko sistema ofiziala ez zaigu logikoa ezta neurri onekoa iruditzen. Hori Gobernuari eta Parlamentuari helarazi behar zaio eta espero dut aditza eta kontuan hartzea. Hemen ez da arazo handirik, baina kanpotarraren tabua kendu eta inmigrantea ongi hartu eta errespetatzen ikasi behar dugu».

Virginia ALEMAN
Baztango alkatesa
D.Noticias 2003-06-19



PAGOLA
TXISTORRAREN
IZENA

© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

• 11 GALDERA LABUR •

Sanferminetako txupinazoa igandean aurtan: bestak hasi arte, ortzirala eta larunbata etxean?

Ez dut uste. Lesakar gehienak bezala, asteburua ere probetxuko dut.

San Fermin eguna, luzeegia ezpatadantzarietzat?

Bai eta ez. Teorian luzea da, goiz hasten garela, baina xaltan sartua zaudenean labur egiten da.

Peñen eguna: oraindik errekan sartzeko go-goekin?

Gero eta guttiago, baina aurtengo bero hauekin ongi etorriko da.

Umeen eguna: atsedena?

Bai, relax pixko bat izaten da, egunez batez ere.

Ezkonduen eguna: bikotearekin edo bikote gabe?

Azkeneko urteetan bikotearekin. Aurtengo ere seguru aski bai.

Goizaldean, txokolata txurroekin edo arraultzea magrarekin?

Arraultzea magrarekin, bi aldiz.

Betizuetan ateratzen den bakarretakoa zara. Desagertzerako daieen ikuskizuna da?

Trixtea da, baina noski bai. Gazteak gero eta guttiago ikusten dira. Ordua ere ez da egokiena.

Dantza plazan edo ostatuan?

Ostatuetan bai, plazan tarteka.

Uztailaren 11. Bestondoa ohatzean, lanean edo Iruñean?

Arratsean Iruñean buelta bat emanen dugu.

Beti Gaztek Preferentera igotzea lortu du. Heldu den urtean berriz beheiti?

Igotzea jaustea baino zailagoa da. Nik uste dut mantenduko garela.

Aurtengo ere golegile nagusia izan zara.

Azeri zaharraren golak dira zureak?
Esperientziak laguntzen du, bai.



Iñigo RODRIGUEZ
Beti Gazteko jokalaria
eta ezpatadantzaria



FUNERARIA
ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guztietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

© 948 637404

© 900 704704



ZENTRU
LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA
Nekane Ordoki Gonzalez

- ★ Ahozkopen zailtasuna ("erre" goizki esana, "ceceo"...)
- ★ Gauzak kontatzeko zailtasuna
- ★ Irakurketa arazoak
- ★ Idazketa arazoak
- ★ Toteltasuna "tartamudeo"
- ★ Ahots arazoak
- ★ Arnasketa arazoak

Euskaraz/Enlace

© 646 894 332
BERA

ERREPIDEAK

Nafarroa eta Iparralde lotzen dituzten bideak hobetzeko laguntza Europatik

Elizondo eta Aldude artean pista berria ere eginen litzateke

ttipi-ttapa

Sara eta Zugarramurdi arteko bidea hobetzeko eta Elizondo eta Aldude artean bide berria egiteko dirulaguntza eman du Europako Interreg programak. Aurrekontuaren erdia estaltzera ailegatzen ahal da Europako dirulaguntza. Gainera, Nafarroako errepide zatien gastuaren %80a Nafarroako Gobernuak ordainduko duela jakinarazi die Zugarramurdi eta Baztango udalei.

Honela, Zugarramurdi eta Sara arteko 5,7 kilometroko bidea moldatzeak 207.908 euroko aurrekontua izanen du. Europako laguntza kontuan hartu gabe, 101.600 euro Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu, 25.400 euro Zugarramurdiko udalak eta 80.098 euro Sarako Udalak.

Baztan eta Aldude arteko bidearen kasuan, berritik egin beharko litzateke, Bailei inguruko Belaun mendi-lepotik



ARTXIBOKOA

Zugarramurdi eta Sara, Elizondo eta Aldude eta Orbaizeta eta Idopile arteko bideak moldatu eta zabaltzeko dirulaguntza eman dute Europatik.

hasi eta Aldudeko pistarekin lotuz. Aurrekontua 605.554 eurokoa izanen litzateke; Nafarroako Gobernuak 440.000 euro ordaindu-

ko ditu, Baztan Balleko Udalak 110.000 euro, Baigorriko Herriko Etxeak 32.024 euro eta Aldudeko herriak 23.530 euro. Beti ere, gastua

murritzuko da Europa-ko dirulaguntzari esker. Inguru honetatik kanpo. Orbaizeta eta Idopile arteko bidea ere moldatuko da.

OSASUNA

Erretzeari uzteko laguntzak

Nafarroako Gobernuak tabakoa erretzeari uzten saiatzen direnei medikamentuen gastuaren %60a finantziatuko die, ekainaren 16an onartutako foru dekretuaren arabera. Nikotinaren partxe transdermikoak eta Bupropión Nafarroaren baliabide propioen kargura finantziatuko dira. Beraz, tabakoari buruzko ekintzen Foru Planak erretzeari uzteko sustatzen dituen programetan aritzen diren eta Osasunbidearen osasun txartela duten nafar herritarrek errezeta ofizial bat jasoko dute, Foru Erkidegoaren fondoen kargura finantzatzeko diren medikamentuena bezalakoa. Tabakoa uzteko prozesuan laguntzen dien medikuak eginen die errezeta eta medikazioaren egiazko kostuaren %40 bertzerik ez dute ordainduko. Jubilatuek eta pentsiodunek erabateko finantziazio publikoa izanen dute, Giza Segurantzak edo Foru Erkidegoak berak finantziazten dituzten gainerako medikamentuek bezalaxe.



© 948631076 • BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 948630083 BERA

JOSE I. GONZALEZ ENGUITA

PINTURA LANAK OROKORREAN

666 235 466

948 630 683

Bidasoa 49 - 1.ezk • 31780 BERA



BERA

Udal haurtzaindegian izen emateko bigarren epea akautu da

Onartutakoen behin betiko zerrenda uztailaren 14an argitaratuko da

Amaia eta Ainhoa

Udal Haurtzaindegiak datorren ikasturtean ateak zabaltzeko asmoak ditu. 2001, 2002 eta 2003an jaiotako umeak hartuko ditu haurtzaindegiak. Ekainaren 9tik 16ra bitarteko epea zuten gurasoek izena emateko baina epe hori luzatu zen. Bigarren epea ekainaren 25etik 30era zabaldu zen hain zuzen. Adin tarte horretan, 2 urte arteko adin tartean, 98 ume inguru badaude eta ekainaren 26an 23 gurasok emana zuten izena. Onartutakoen behin behineko zerrenda uztailaren 4an argitaratuko da eta erreklamazioak 7tik 10era aurkeztu ahal dira. Eskera guztiak aztertu ondoren, onartuko diren umeen behin betiko zerrenda uztailaren 14an argitaratuko du udalak. Gurasoen etxea edo gurasoetako baten lantokia haurtzaindegitik hurbilegoteari emanen zaio puntuaziorik handiena eta ondotik gehien baloratuko diren ezaugarriak hauek dira: gurasoen lan egoera, errenta maila eta familiaren osakeraren egoera. Gainera, behar larriak di-



ARGAZKIA: J. IRIGOIEN


Ekainaren 15ean, Isidoro Fagoaga Musika Eskolak antolatua, musika banden alardea egin zen. Goizez, Buñuel, Zangoza, Ribaforada, Beasain, Lesaka eta Berako berrehun bat musikarien erritmo eta doinuek bete zituzten auzo eta karrikak. Herriko Etxeko plazan egin zitzairen ongiatorria musika bandei eta eguerdian, kalejiraren ondotik, Altxateko Plazan bildu ziren. Marijo Bergara, musika eskolako zuzendariak aipatu zuenez, Beran Musika Banda sortzeko ahaleginean ari dira eta beraien esku dagoen guzia egiten saiatuko dira, hori baitzen azkenean alarde honen helburuetako bat.

tuzten familien kasuak ere baloratuko ditu Haurtzaindegiak Batzordeak, noski, hauek frogatuta egon ezker. Aipatzekoa da, izena emateko ireki zen lehendabiziko epean izena eman zuten haurtzaindegiaren dutela lehentasuna umeak onartzerakoan. Bertzetik, matrikula egiteko abisua bere momentuan emanen du udalak.

Gure Txokoak ez du nesken futbol talderik izanen datorren denboraldian

Gure Txokoa neska taldea datorren denboraldian ez da arituko neska gutti baitago jokatzeke. Horregatik jokalaririk gehienak Irungo Mariño taldera joatea erabaki dute. G.T. Mariño izenarekin osatu duite taldea eta Mariño berak ordainduko diz-

kie ligako gastu guztiak. Bertzalde, Iruñeko Lagunak nesken futbol taldeak igoera fasea jokatuko du azken egun hauetan. Horrela, talde honek partidu horiek aritu ondoren mailaz goitza lortu du eta Espainiako Superligan ariko da heldu den denboral-



Espainiako igeriketa txapelketara

Ander Rodriguez Kortak Espainiako igeriketa txapelketan parte hartuko du uztailaren 10etik 13ra Valentzian. 5 probatan parte hartzeko guttueneko denbora baldin badu ere, gehienez 3 probatan parte hartzen ahal du. Joan den asteburuan ere Euskadiko txapelketan parte hartu zuen.

Igerilekua

Ekainaren 14an ideki zuten eta irailaren 14an itxiko ditu ateak igerilekuak. Egutegiko 11:00etatik 20:00etara zabalik egonen dira. Urtero bezala igeriketa ikastaroak emanen dira uztailaren 21etik abuztuaren 24ra. Berrikuntza bezala, uztailaren 14an aquaerobik ikastaroa eta uztailaren 21etik bukaerako bi gauzez musika eta dantza afrikarren ikuskizunak izanen dira.

dian. Talde honetan, Berako Miriam Erkizia aritzen da eta orain bertze beratar bati eskaini diote aritzeko aukera, Ane Bergarari hain zuzen. Beraz, datorren denboraldian bi beratar gazte hauek maila nazionalan ikusi ahal izanen ditugu talde nagusienera aritzen, adibidez, Athletic-eko nesken kontra.

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua



© 948630155

BERA

© 948 631 462
Altxate 1 • BERA



LESAKA

Juan Fermin Mitxelena izanen da alkate datozen lau urteetan

Joxe Luis Etxegaraik, 16 urteren ondotik, kargua utzi du ustekabeen

Aitor AROTZENA

Azken 16 urteotan Lesakako alkate izan den Jose Luis Etxegaraik karguari errenuntzia egin ondotik, Juan Fermin Mitxelena izanen da Lesakako alkate legegaldi berri honetan. Horrela, bada, EAJ-EAko zerrendan 7. postuan zen Peio Apeztegia kontzejal sartuko da.

Legez kanpo utzitako Herria Aintzineria Plataforma kontzejal Batzar Aretoran elkartu ziren ekainaren 14an «Lapurretarik ez! Demokrazia Euskal Herriarentzat» zioten karlekin. Udaletxeko baloitik ere pankarta handi bat zintzilikatu zuten. Izan ere, Plataforma honetatik aditzera emandakoaren arabera, euren alde emandako botoak kontuan hartu izan balira, EAJ-EAko bortsordezkari izanen lituzke Lesakako Herriko Etxean, ONINEk lau eta Herria Aintzineria plataformak bi.

Juan Fermin Mitxelena Larralde da, beraz, alkate berria. Lehendik ere zortzi urte bete ditu Herriko Etxean, eta azken legegaldian bera zen alkate-ordea.

Dena den, karguari



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Etxalarko laugarren trikitixa txapelketan, 13 eta 15 urte arteko mailan, txapeldun suertatu ziren Raquel eta Itsaso Fagoaga ahizpa lesakarrak. Ekainaren 22an egin zen txapelketa honetan izan ziren Lesakako bikote gehiago ere: 7-12 urte artekoetan, Esther Gurutxet eta Iñaki Pikabea, eta 13-15 urtekoetan, Itsaso Fagoaga eta Maider Etxandi, loar Oteiza eta Maddi Uranga eta Maider Etxandi eta loar Oteiza. Fagoaga ahizpak musika tresnak aldatuta ere aritu ziren. Orain, Baztan-Malerreka-Bidasoa aldeko gazteen 6. Trikitixa Txapelketaren finala eginen da uztailaren 5ean Lesakan.

errenuntzia egin ondotik, Jose Luis Etxegaraik prentsari egindako adierazpenek hauts handia harrotu dute. Adierazpen hauetan, Onin taldeari EAJ-EA taldeko zinegotzi baten botoa erosten saiatu izana leporatu zion: «gure taldeko zinegotziak jakinarazi zidan maniobra hori egitea proposatu ziotela, eta berehala uko egin nion zinegotzi kar-

gua hartzeari. Jakina, ni joatea lortu dute, baina traizioa egin diote Lesakako herriari. Nire zinegotzi bat erosten saiatu dira, eta ez dute kategoria politikorik nire mahaian jartzeko».

Onin taldeak erantzun egin die adierazpen hauei eta «paranoia eta montajetza» hartu ditu, demanda egiteko eskubidea gordez. Oninen ustez, «azalpen ba-

karra da Etxegarairen plana ez zela alkate izaten jarraitzea, eta hutesleen aintzinean bere burua justifikatzeko modu bat behar zuela». EAJ-EAko gaur egungo zinegotziei «mamu zahar horiek kontuan ez hartzea» eskatu die Onin udal taldeak: «Udal kudeaketan aro berri bat hastera doa, elkarlanean eta elkarriketa etengabe oinarritua».

Ondarea zainduz Azkaineekin

Ekainaren 21 eta 22ko asteburuan, Ondarea Zainduz egitasmoa gauzatu zen, Lesakak Azkaineekin duen senidetzearen barnean eta Udalbiltzaiko Hurbiltzen ekimenak sustatua. Ekintza garrantzitsua igande arratsaldean egin zen. Lesakako herritarrek ibilaldi gidatua eskaini zieten Azkaine bisi-tariei, herriko garapen historikoaren berri emanez, aztarna monumentalaren lekukotasunaz baliatuz.

Larunbatean, kultur ondarearen inguruan aitzinera eraman diren zenbait esperientziaren berri eman zen. Azkaingo ordezkariak «Ondare gaua» egitasmoa azaldu zuten, Irunberrikoak 2003ko Nafarroa Oinezari buruz, Baztandarren Biltzarrari buruz, Zubietako Errotaz, Nabarraldeko ordezkariak Nafarroako ondare aberastasunaz; «Antso III.a Handia: Nafarroa Osoa Gogoan» proiektuaz, eta lesakarrak Ondarea Zainduz proiektuarekin xehetasunez gain aritu ziren.

Ondarea Zainduz Udalak antolatutako programa da eta Europako Batasuneko Hiri Arteko Senidetze programaren laguntza du.

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRIAK

Bera - Tfnoa: 948 610 735 - 607 406 781

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

«USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tfnoa: 948635214

ETXALAR

ETXALAR

Irune eta Itsaso Elizagoien hirugarren izan ziren Etxalarko IV. trikitixa txapelketan

Alaitz Danborienak eta Maitane Altzugurenak ere parte hartu zuten ekainaren 22ko saioan

Joseba eta Nerea

Ekainaren 22an bu-
rutu zen laugarren Etxa-
larko Trikitixa txapelke-
ta, parte hartu zuten tri-
kitilari gazteek bero izu-
garria lagun (edo etsai)
zutela. Euskal Herri oso-
ko 14 bikote lehiatu zi-
ren herriko plazan arra-
tsaldeko 6etatik aitzin
egin zen txapelketan. Bi
kategoriatan banatu zi-
ren trikitilari guztiak. 7 ur-
tetik 12ra talde bat eta
12tik 15era bertze bat.
Lehenbiziko kategoria-
ko hoberenak Eneritz
Bengoetxea donostia-
rra eta Edurne Erran-
donea andoaindarra
izan zirela erabaki zuen
Edurne Iturbek eta Oihana
Irastorzak osaturiko
epaimahaiak. Bigarren
postuan, berriz, Ziordiko
Eider Alzelai eta Ur-
diango Jone Unamuno
gelditu ziren eta hiru-
garrenean Irune eta Itsa-
so Elizagoien ahizpa
etxalartarrak. Nagusia-
goen kategoriako ira-

bazleak Raquel eta Itsa-
so Fagoaga lesakarrak
izan ziren, Ixiar Elola eta
Eider Gorostidi gipuz-
koarren aitzinetik.

Etxalarko ordezkari-
ek saio txukuna egin
zuten eta nahiz eta ez
zuten lehenbiziko hiru
postuetan sartzerik izan,
gustura ageri ziren Irune
eta Itsaso Elizagoien
eta Alaitz Danboriena
eta Maitane Altzuguren
trikitilari gazteak. Be-
raiek izan ziren herritar-
ren txalo eta animorik
beroienak hartu zituzte-
nak. Jone Elgorriaga ira-
kasle eta antolatzailea
gustora ageri zen mu-
sikarien mailarekin.

Igerilekuak irekiak ekainaren 21etik

Uda hastearekin ba-
tera, eta baita lehen-
gotik ere, tenperatura
ikaragarriak buruko mi-
na eman arte kiskali gai-
tuzte goitik beheiti. Ho-
rregatik, aurren inoiz bai-

no gehiago eskertu du-
gu etxalartarrok igerile-
kuen irekiera. Uda aile-
gatu zen egunean be-
rean, ekainaren 21ean,
ireki ziren Lesakako
Izaskun Obeso eta Itsa-
so Leizaren ardurape-
an dauden igerilekuak.
Aurtengo sasoirako pa-
ratu dituzten prezioak
hauexek dira: egunekoa
1,65 euro 7-10 urte bi-
tarteak; 2,70 euro 11-
16 urte bitartekoak eta
16 urtetik goitikoak 4 eu-
ro. Aldiz, sasoi osorako
bonoa egin nahi izanez
gero 2-10 urte bitarte-
koek 9,95 euro ordain-
du beharko dute; 11-16
urte bitartekoek 16,55
euro eta 16tik aitzin
32,10 euro.

Txinako diapositiba emanaldia

Jon Abril eta Asier
Gogortza kazetari be-
ratarrek joan den aben-
duan txinara eginiko bi-
daiaren ingurukoak kon-



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Irune eta Itsaso Elizagoien, eta Alaitz Danboriena eta Maitane Altzuguren gustura bere sariekin.

tatuko zituzten joan den
ekainaren 27an, ortzi-
rala, Kultur Etxean egi-
nen zen diapositiba
emanaldian. Ilunaba-
rreko zortzietan izan zen
Etxalarko Euskara Ba-
tzordeak antolaturiko
emanaldia eta koadrila
polita bildu zen bi gaz-
teen abenturaren berri
izateko.

Udaleku irekiak

Ekainaren azkeneko
asteen hasi ziren sei-
garren aldiz Ipurtargi Ai-

sialdi Taldeak antola-
tzen dituen Udaleku Ire-
kiak. Aurtengoan Amaia
Agirre eta Leire Olaga-
rairen gidaritzapean, 35
bat haur hasi ziren 4 as-
tez luzatuko diren uda-
leketan. Beti ere ongi
pasatzeko helburuare-
kin, mendira ibilaldiak,
eskulanak, antzerkiak,
jolasak eta bertze hain-
bat gauza egingen dituz-
te datozen egunetako
bero zakarrak ahalik eta
modurik hoberenean
pasatzeko.

ERREKALDE

OSTATUA

PLATER KONBINATIONAK

PINTXOAK

BARATILAK

TEL: 948 630 259 6224

loredenda

Albistur, 39-K
627542
LESACA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

LEGARRA

Prentsa	Fax publikoa
Liburuak	Plastifikazio
Tabakoa	a
Opariak	Enkuadernazi
Kukuxumusu	o
kamisetak	lanak
	Imprenta
	lanak

Egunero irekia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO

ISTATU - JATETxea

Baratarra, 39 • 948 63 24 00
Tel: 948 63 24 00

IGANTZI

Herria ezagutuz

Uztailaren erdian hasiko dira haurren udako aktibitateak

Fernando Senosiain eta Mikel Zelestino izanen dira irakasle berriak

Oskar TXOPERENA

Bertze zenbait herri-tan lehenago hasiak ziren haurrentzako udako aktibitateekin, baina aurtengoa izanen da Igantzin lehenbiziko urtea. Informazio eta izenemate orria zabaldu zuten eskolatik ekain hasieran eta 17rako zuten eman beharra izena aktibitateetan parte hartu nahi zutenek. Hilabete bat iraunen dute, uztailaren erditik abuztuaren erdira arte, eta hagitx joku eta aktibitate ezberdin prestatu dituzte izena eman dutenentzat: Erreka garbiketa, piszina jokoak, saskigintza, kirola... Begiraleak Lesakako aisialdi talde baten ardurapean egonen dira.

Berria-ri laguntza

Akaututzat eman da dagoeneko Berriaren aldeko kanpaina eta aurreikuspen baikorrenak ere gainditu ditu dirubilletak. Azkenean 3.500 euro bildu dira 300 eta



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Ekainaren 14an Zegamako Orkatx Abesbatza entzuteko aukera izan genuen elizara ilunabarrez hurbildu ginenok. Igantziko Abesbatzak antolatuta, kontzertu ederra eskaini zuten. Ez zen jende sobera bildu, horrelako ikuskizunetarako ez delako akaso garairik hoberena, baina bertaratutakoek 1987an sortutako abesbatz honi dagoeneko ongi gorpuztuta dagoen taldearen itxura hartu zioten. Motza egin zitzaizen ordu bete pasatuxea iraun zuen ekitaldia. Ohi denez, bestak Biltoki Elkartean izan zuen segida, bi abesbatzek elkarrekin egindako afarian.

50 euroko akzioetan. Pozik egoteko moduko kopurua.

Irakasle berriak

Akautu berria da 2002-2003 ikasturtea. Urtero bezala, akabila aldera, haurren eguna eta egun bateko bi-daia egin dira. Baina ber-

tze berri bat ere jakiteko aukera eman du irailak. Alex eta Maite irakasleak behin-behineko lanaldia betetzen ari ziren azken urteotan, baina hurrengo ikasturtean ez dute Igantzira etortzerik izanen, lanpostuak bete egin direlako. Fernando Seno-

sain eta Mikel Zelestino, bata iruñearra eta bertzea gasteiztarra, oker ez bagaude, izanen dira irailetik aitzinera lanpostuak hartuko dituztenak. Gogotik ari beharko dute Alex eta Maitek Igantzin erakutsi duten gogoia eta mailara iristeko.

Latsaga karrika berria

Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu zutabe honetan Berriazundik Arantzarako errepidea 1890a inguruan hasizela. Igantziko herria errepide berriarekin non lotu erabakitzea aunitz gosta zen, baina Sarrolatik atera eta Gaztaibakarren elkartuko zirela erabaki zenean bertze eztabaida sortu zen herrian, Sarrolatik plazara nondik joan: ("1891: La opinión del pueblo está dividida acerca del trayecto de la carretera hasta llegar a la plaza"). Alde batetik, Latsaga karrikako etxeek, Goietxeatik Antsolazena bitartekoek, karrika berria euren baratzeetatik egitea nahi zuten, eta herriko goialdeak berriz karrika-zarretik zuten nahiago. Kontuak kontu, 1892an egin zen gaur egun ezagutzen dugun Latsaga Karrikaren zati hori, Seroñeatik Goietxeara doana, alegia. Erabakia hartzeko, orde, euren baratze zati haundiak oparitzera ere iritsi ziren lehen aipatu ditugun etxeen jabeak, Antsolazena-koa bertzeak bertze: "1892: Dña Martina Bellarra ofrece gratuitamente al Ayuntamiento la huerta de Antsolacena".



ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Alberto RETEGI abokatua

Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

ATM S.A.



AUXILIAR DE
TRANSFORMADOS
METALICOS, S.A.

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxe: 948 637 313

ARANTZA

Herriko gaztetxoek idazlanak berriz ere saritu dituzte

Aitziber Lizardik eta Leire Mitxelenak lanik hoberenak egin dituzte

Nerea ALTZURI

San Juan egunean, ekainaren 24an egin zen sari banaketan Iruñean. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura departamentuak, Literatura, Dialektologia, Etnologia, Irakurketa eta Deklamazio arloetan antolatu lehiaketetan sarituak izan dira eskualdeko zenbait ikastetxeetan. Ez da lehendabiziko aldia, herriko eskolako gaztetxoak sarituak izaten direla. Aurtengo ikasturtean, euskaraz eginikoetan, DBHko lehenengo zikloan ikasten ari den Aitziber Lizardi bere adinekoek zuzenduriko Ipuin lehiaketan lehendabiziko sariarekin etorri zen etxera, «Arruzpiko sorginak» lanarekin. Aitziberrekin batera, Leire Mitxelenak Dialektologia eta Etnologia mailan «Arantzako dendak, orain dela 50 bat urte» izeneko lana aurkeztu zuten.

Sail honetako sari nagusia ere Aitziber eta



ARGAZKIA: XABI ZUGARRAMURDI

Arantzako Telleri landetxean astebete igaro dute entsegu eta prestaketa lanetan Homo musika talde berriko kideak. Taldearen lana abenduan ospatzen den Durangoko azokarako ezagutzera emanen da, diska irailean grabatu ondoren. Laukotea; Juan (Ekon), Mikel eta Keu (Etsaiak) eta Su ta Gar taldean ibilitako Iban Zugarramurdi aranztarak osatzen dute. Musika indartsuaren barruan tendentzi berriak jorratzen dituzte eta aurrerantzean kontutan hartzeko taldea izango da dudarik gabe. Datorren abenduan hasiko dira zuzeneko kontzertuak ematen.

Leireren lanarentzat izan da. Suantenean orain dendarik ez badago ere, garai batean denda zegoen; eta Mercedes Larretxearen egitza elkarriketa izan

dute oinarri gaztetxoek. Beraz, norbere irudimenean oinarritutako lanekin ez ezik, herriko historian edo etnologian oinarritutako lanekin ere bikain ibili dira idazle

gaztetxoak. Herriko historiako artxiboan gertatu dira lan hauek ere. Guziz aberatsak egiten diren lan guztiak ere, herriarrok herriari buruz gehiago jakiteko.

Hirigintza arauak uztailaren 17a bitarte ikusgai

Ez da oraingo berria herriko etxeak arau urbanistikoak aldatzeko tramiteak egin zituela. Aurreko udalbatzak, duela aste mordo bileran informatiboa egin zuen gaitz honen gain solas eginenez. Bando baten bidez jakinerazten da orain, uztailaren 17rarte egonen direla arauak Herriko Etxean jendaurrean ikusteko, eta alegazioak aurkezten ahal direla epe horretan.

Hilerriko ordenantza

50 urteko epean hilerriko hilobiaren kontzesioarengatik 100 euro ordaindu beharko dute aranztarrek. Horrela ageri da hilerria arautzeko udalak onartutako ordenantza. Kontzesiodunek egoera onean kontu beharko dute hilobia, Aste Santuan eta Domisaindu egunean batez ere.

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinenezko izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-katarata

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritisa, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsalde 2-7etara. Ordutegia eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA

ALFONBRAK SALMENTA

PERTSIANAK MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etab...

MALERREKA

Ituren eta Zubietako udal aurrekontuak onartu dituzte

Iturenen, iazko kontuak defizitarekin itxi zituzten

ttipi-ttapa

Iturengo Udalak maiatzaren 9an egin-dako batzarrean aurtengo udal aurrekontua onartu zuen. Normalki, aurrekontuak berdin-
duak izaten dira gastu eta sarreretan, baina Iturengo Udalak joan den urteko kontuak defizitarekin itxi zituenez, aurtent nahitaez superabita aurkeztu behar izan du, Honela, 618.443,59 euroko dirusarrerakizanen ditu Udalak; gehienak, kapital transferentzia edo dirulaguntzen bidez, 185.965 euro; 56.331 euro zuzeneko zergen bidez, 16.227 euro zeharkako zergen bidez, 12.823 euro ta-

sa eta bertzelako dirusarrekin, 107.543 euro transferentzia arruntekin edo 83.409 euro ondareko dirusarrekin, bertze sarrerentean.

Aipatu bezala, gastuak nahitaez tikiagoak izanen dira aurtent, 549.051,13 eurokoak. Langileen lansariak 13.282 eurokoak izanen dira, ondasun eta zerbitzuen gastuak 75.758 eurokoak eta transferentzia arruntak 74.444 eurokoak. Gasturik handiena inbertsioetan joanen da, 328.378,84 euro. Dirutzarik handiena Amezti bidea zolaberritzen joanen da, bi zati eginen baitira. Bide



ARTXIBOKOA

Zubietako Udalak kanposantua handitzen eta mendiko lanetan eginen ditu aurtengo inbertsiorik handienak.

nagusia berritzeko 121.281 euro erabiliko dira eta baserrietako bideak moldatzeko 139.678 euro. Kanposantua handitzeko 45.000 euroko gastua izanen da eta mendiko lanetarako 11.000 eurokoa.

238.227 euroko aurrekontua Zubietan

Zubietan, 283.227,48

euroko diru-sarrerakizanen dituzte, udalak maiatzaren 19an onartutako aurrekontuaren arabera. Diru sarreretan, zergen bidez 50.500 euro eskuratuko ditu Udalak, tasa eta bertzelako dirusarrekin 9.058 euro, transferentzia arruntekin 125.757 euro, eta kapital transferentzia edo dirulaguntzekin 48.507 euro, bertzeak bertze. Gas-

tuei dagokienez, langileen lansariak 125.661 eurokoak izanen dira, ondasun eta zerbitzuen gastuak 51.071 eurokoak, transferentzia arruntak 20.427 eurokoak eta inbertsioak 64.859 eurokoak. Atal honetan, bi lan izanen dira aipagai: kanposantua handitzeko 35.500 euroko gastua espero da eta mendiko lanetarako 20.359 eurokoa.



OLAZAR AROZTEGIA, S.L.

AROZTEGI METALIKOA
ITXIERA METALIKOAK
ALUMINIO AROZTEGIA
ESTRUKTURA METALIKOAK
ZERRAILGINTZA
KALDERAGINTZA
ATE BASKULATZAILE eta AUTOMATIKOAK

Aparan industrialdea, 1. nabea • DONEZTEBE
Tel-Fax: 948 45 61 83 • Mug.: 649 13 93 65



HERRI OSTATU
GAZTELU

- Logelak
- Gosariak, bazkariak, afariak...
- Eguneko menua eta asteburutan menu bereziak
- Ospakizunak, kinto bestak, etabar...
- Terraza

Tel: 948 450105 • Mug.: 647 043501



© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

DONEZTEBE

Andres Perez iruñearra irabazle Herri Lasterketaren 25. edizioan

Doneztebarren artean Santi San Miguel izan zen bizkorrena

ttipi-ttapa

Andres Perez korrikalari iruñearra nagusitu zen ekainaren 15ean Erreka elkarteak antolatutako 25. herri lasterketan. Senior mailan 31 korrikalarik bertzerik ez zuen parte hartu. Andres Perezek 23 minutu eta 32 segundutan osatu zuen ibilbidea. Antonio Etxeberria izan zen bigarren 24 segundura eta Ramuntxo Lamothe saratarrak osatu zuen podiuma, irabazlearen gainetik minutu eta 14 segundura. Aingeru Mingegia leizarra laugarren izan zen. Doneztebarren artean Santi San Miguel, Mayi Ruiz eta Sergio Iribarren izan ziren bizkorrenak.

Emakumeen artean Rosa Orofino izan zen bizkorrena eta jubeniletan, Irungo Bidasoa Atletiko taldeko Fernando Etxezarreta. Beteranoetan, Ardoi taldeko Patxo Orofino izan zen irabazle (25'36"), Hiru Herri taldeko Juan Carlos Fuente bigarren



ARGAZKIA: DIARIO DE NAVARRA

Maila ttikienetan irabazle suertatu ziren neska-mutikoak gustora sariekin.

eta Mikel Juanikorena zubietarra hirugarren. Emakume beteranoe-tan Mertxe Orofino izan zen irabazlea.

Proba nagusiaren aitzinetik, ordea, ttikienetan txanda izan zen. Sei urtez beheitiko maila berezian Jon Belarra, Mikel Retegi eta Elena Zabala izan ziren bizkorrenak. Aurrebenjamin mailako mutikoetan, Hiru Herri taldeko Garai

Armendariz izan zen garraile, Xabier Olazar eta Fermin Estanga doneztebarren aitzinetik. Nesketan, Sara Azkarate izan zen lehena eta Leire Lezaun bigarren.

Benjamin mailako mutikoetan Josu Telletxea helmugaratu zen lehen postuan, Unai Urroz eta Xabier Ibarrolaren aitzinetik. Nesketan, Idoia Zamorano gailendu zen, Nerea Ma-

txifena eta Iratxe Garde gibelean utzita. Alebin mailako mutikoetan, Gardoi taldeko Ayrton Azkue izan zen irabazle, Iñaki Bermejo eta Iñigo Goñiren aitzinetik. Nesketan, Maitane Larretxeak, Olai Olazarek eta Maria Estangak osatu zuten podiuma.

Infantiletan, Garikoitz Urroz izan zen bizkorrena mutikoetan eta Ainhoa Blas nesketan.

PERTSONAIA

Patxi OLAZAR

Azpeitiako Hiria txapelketa irabazi dute Iribarren eta Olazarrek

Patxi Iribarren eta Patxi Olazar doneztebarrek irabazi zuten ekainaren 14an Azpeitiako Hiria Erremonte txapelketa. Izarraitz pilotalekuan jokaturako finalean 40 eta 29 irabazi zieten Urrestillako Bereziartua eta Ioneri. Txapelketako pilotaririk onena izendatu zuten Patxi Olazar izan zen finaleko onena ere. Zortzi tantu egin zituen sakez eta bikain aritu zen gibe-leko koadroetan. Kontuan hartu behar da aurten debutatu duela Olazarek, baina jokatu dituen partida gehienak irabazi egin ditu. Iribarrenek ere partida polita egin zuen aitzinean.

ARTEKARI

TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Astelehenerik asteazkenera 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara
- Orteguren eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

Langile Autonomoak
Nekazariak eta mendi-langileak
Nominak eta Aseguro Sozialak
Lan-kontratutarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitortpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Harategia

Eztegara 3

Tfnoa: 948 630 198

BERA

SALDIAS

Herri kirol saio bikaina izan zen San Juan festetan

Patxi Larretxea garaile txingatan eta harri jasotzen

ttipi-ttapa

Beste urte batez joan dira Saldiasko San Juan bestak. Aurtengoan ekitaldi nagusia, Iparraldeko Joku Torneoaren bigarren jardunaldia izan zen, larunbatean egin zena. Hainbat herri kirol ikusteko modua izan zen plazan. Koxkor biltzen, Nafarroako eta Euskal Herriko txapelduna den Fernando Etxegarai izan zen bizkorrena, Berriozarko Iosu Jimenez eta Iñaki Eki-

soainen aurretik. Ingu- de altxatzen, Xabi Sein igantziarrak lortu zuen garaipena, 59 jasoaldi- rekin. Garraldako Jose- txo Iriartek 52 jasoaldi egin zituen. Harrijaso- tzen, zilindrikoarekin, ku- bikoarekin eta bolare- kin aritu ziren lanean eta Patxi Larretxea izan zen onena, guzira 3.612 ki- lo terdi altxatu baitzituen. Mikel Lasartek 3.125 ki- lo altxatu zituen eta Jo- setxo Urrutia labaien- darrak 2.935 kilo. Txin-

gatan ere, Arraiozkoa aisa nagusitu zen, 20 plaza egin baitzituen. Bi- garren izan zen Mikel Lasartek 9 egin zituen, kontuak atera!

Saio ikusgarriena eta parekatuena lasto al- txatzen eskaini zuten. Carlos Sein eta Miguel Angel Etxarte igantzia- rrek 24 jasoaldi eman zituzten, Iñaki Bereau igantziarrak eta Asier Bertiz sunbildarrak 23 eta Xabi Sein eta Iban Txoperena igantziarrek



ARGAZKIA: LEGARRA

Koxkor biltze saioan aritu ziren kirolariak. Fernando Etxegarai beratarra (kokorika, ezkerretik le- hena) izan zen bizkorrena.

22. Zaku lasterketan, az- kenik, Berriozarko hiru- kotea gailendu zitzaion Garralda eta Igantziko- ari.

Herri kirol saio ede- rra izan zen, baina bes- tetan izan zen bestela- ko ekitaldi berezirik ere. Lehendabiziko egune-

an, herritarrek eginda- ko pelikularen emanal- di arrakastatsua egin zen. Kasik egunero, gaztetxoaren arteko pilo- ta partiduak izan ziren. San Juan bezperako suak eta San Juan egu- neko mezak ez zuten hutsik egin.



UDALBILTZA®

EUSKAL HERRIKO UDAL
ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

UDALBILTZA®k,
denon giza-eskubide guztien alde egonik,
Euskal Herriko herrien arteko senidetze
programa berezia abiarazi du: **HURBILTZEN**

www.udalbiltza.info.com



ARKUPEAK

Aitatxi-amatxien Eguna uztailaren 26an ospatuko da Zugarramurdin

Meza ondotik
bazkaria izanen
dute Azketa
jaketxean

ttipi-ttapa

Uztailaren 26an aitatxi-amatxien nazioarteko eguna ospatuko dela eta, Arkupeak erretiratuaren elkarteak ospakizun berezia prestatu du Zugarramurdin.

Eguerdiko 12:30etan, Zugarramurdiko elizan Meza izanen da. 14:00etan, bazkaria izanen dute Azketa jatexean, honako menu honekin: fritoak eta kalamarrak, bakailuz betetako pikillo piperrak, urdaiazpikoa, patea eta zainzuriak; errusiar entsalada, salda, bildots errea patata eta letxua-ekin, kaba eta sagar tarta, ura, ardoa, kafea eta kopa arruntarekin hornitua. Bazkal ondotik, oroigarri bat emanen zaie bestan parte hartzen duen aitatxi edo amatxi bakoitzari eta arratsaldeko 5:00etatik 7:30etara dantzaldia izanen da. Ondoren, herrietara itzuliko dira autobusak.

Egun osoaren prezioa 25 eurokoa da eta txartelak erosteko epea zabalik egon da uztailaren 3ra arte.

Bertzalde, 85 urte eta urrezko ezteiak betetzen dituztenei omenaldia egin zien Arkupeak elkarteak ekainaren 27an Donezteben.





NATUR HOUSE



Dietetika eta Elikadura



NATURHOUSE zentro guztietan zure esku profesional bat aurkituko duzu, eta ikerketa dietetiko baten ondoren, dohainik, **PISUA JEISTEKO eta KONTROLATZEKO** helburua lortzen lagunduko dizu.

NATURHOUSE-n bioinpedantziaren bidez zure grasa kopurua eta zure gorputzako ur kantitatea neurtuko dizugu, zure **PISU OSASUNTSUA** nola lortzen gomendatuko dizugu, eta **garrantzitsuagoa, NOLA MANTENDU!**

NATURHOUSE sistemaren bitartez eta zuretzat egokitutako dieta bati esker **ZURE ITXURA LORTZEA ERRAZA DA**

Pisua galdu nahi duzu?

DEI EZAIGUZU

KONTSULTA DOHANIK

NATURHOUSE
Iglesia kalea, 2 (San Juan enparantza)
IRUN • Tel: 943 627254

NATURHOUSE
Kale Nagusia, 1
ANDOAIN • Tel: 943 304191

GOIZUETA

Literatur sariak barra-barra eskolako ikasleentzat

Esteban AROTZENA

Herriko eskolako ikasleek ikasturte honetan ere Nafarroako Gobernuak antolatuta-ko literatur lehiaketan parte hartu dute, eta baita hainbat sari eskuratu ere. Hala nola, seigarren mailako Xumar Bakerok, lehenengo saria jaso du idatzitako ipuinarekin, eta maila bereko Anxo Albisuk bigarrena, honek ere ipuinarekin. DBH-1 mailako Lorentxo Zabalak narratibako lehenengo saria jaso du; dialektologia atalean, berriz, Biantitz Narbartek bigarren saria eskuratu du.

Literatur arlokoa da Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Kutzak antolatzen duen Hezi-Trankil kanpaina ere. Joko garbia eta kiroltasuna aldarrikatzen dira lehiaketa honetan, eta hemen ere sarituen artean hiru goizuetar daude, Olatz Zabala, Ane Taberna eta Uxua Uitzi hain zuzen.

ARGAZKIA: ESTEBAN

Kurtso bukaerako kontzertua eskaini zuten musika eskolako ikasleek ekainaren 14an. Beti bezain atsegina eta goxoa izan zen gainera.



ARGAZKIA: PILI Z.

Udalbatza berriko kideak beraien karguetaz jabetu ziren momentuko irudia da hau. Dagoeneko jakina da Imanol Legarreta dela alkate berria, baina alkate-ordea eta beste hainbat erakundetako ordezkari eta atal ezberdineko arduradun batzuen izendapena oraindik ofiziala ez denez, hurrengo alean emanen dugu horren berri zehatzagoa.



ARESO

Sokatira taldea bikain Euskal Herriko lur gaineko txapelketan

Ekainaren 21ean jardunaldi bat jokatu zen herrian

Juana Mari SAIZAR

Jende ugari hurbildu zen ekainaren 21ean Aresora, Euskal Herriko Lur gaineko Txapelketako bigarren jardunaldia zuzenean jarraitzeko asmoarekin, nahiz eta eguraldia beroa zen. Azkenean, ez zen ezustekorik izan, eta Areso,

560 kilotan, eta Nuarbe, 680 kilotan, izan ziren onenak. Saioari 560 kilokoekin hasi zen, eta bertan bost talde aritu ziren nor baino nor. Aresok irabazi zuen, tiraldi guztiak bereganatu ondoren. Bere atzetik sailkatu zen Gaztedi A, Goiherri, Getxo eta Gaz-

tedi B. 680 kilotan Nuarbe zen saioa irabazteko hautagaia eta ez zuen hutsik egin, saioko tiraldi guztiak irabazi baitzituen. Bigarren postuan Mutriku sailkatu zen. Azken posturako, lehia handia izan zuten Aresok eta Goiherri. Aurreko biekin gal-



ARTXIBOKOA

Herriko sokatira taldea txapelen bila ari da.

du egin zuten, eta elkarren aurkako lehia berdindu egin zuten.

Astebete lehenago jokatu zen 640 kiloko lehen saioan berdinduta

gelditu ziren Nuarbe eta Areso. Beraz, herriko taldea izan daiteke pisu txikienetan Nuarberi aurre egiten ahal dion bakarra.

LEITZA

Udal berria osatu zen batzar korapilatsuan

Larraingo zinegotziek beraien aldarrikapenak irakurri zituzten

Mikel ILLARREGI

Korapilatsu samar gertatu zen udal talde berrien kargu hartze ekitaldia. Batzar aretoa lepoz gainezka zegoen, baita ondoko eskailerak ere. Hasieran legez kanpo utzitako Larrain taldeak, boto gehien jaso duena hain zuzen (hiru zinegotzi), egoeraren eta aldarrikapen ezberdinen irakurketari ekin

zion. Bitartean UPNko zinegotziak aretora ez ziren sartu. Amaitutakoan, hauek UPNko zinegotzien atzean jarri ziren "Demokrazia Euskal Herriarentzat" zioen paper banarekin. Ohiko tramitazioak egin ondoren, alkatearen aukeraketarako bozketa egin zen. UPNk 5 boto jaso zituen, bereak. Aralarrak 6 boto, 4 bereak eta



2 EA taldeak emanikoak. Arrazoi ezberdinegatik, Udal berriko taldekide direnak eta beharko luketenak ez ziren pozik gelditu.

Hurrengo udal-batzarra uztailaren 11n izanen da eta bertan alkateordea izendatzeaz gain, batzordeak osatuko dira eta bilera eta batzarren maiztasuna.



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

Karguhartze batzarreko bi irudi.

Igerilekuak zabalik

Aurreko astean zabaldu ziren herriko igerilekuak. Ohi den bezala zabaltzearekin batera eguraldi eskasa agertu zen. Hala ere, itxura denez, eguraldi ona izanen du lagun bainu egunetan. Hona hemen aurtengo tarifak:

- 4-13 haurrak: 18,03€
- 14-17 gazteak: 27,05€
- 18 urtetik gora: 51,09€
- 65 urtetik gora: 18,03€
- 10 bainu: 26,15 €
- Familiarra 102,18 €

Herriko banketxetan ordaindu behar da eta ordainketaren ziurtagiria eraman igerilekura.

Igerilekuen kudeaketa eta zainketa Hydra deituriko etxeak eramanen du. Honetarako lau langile hartu ditu; bi sorosle eta beste bi ate-

zain. Irailaren lehen astearte arte zabalik egonen dira eta egunero goizeko 11etatik arratsaldeko 8ak arte.

Tanatorioa

Udalak eta "Cementerios de Navarra, S.L." enpresak, kontratua sinatu dute, hilerriko zerbitzuak kudeatzeko. Hiru urteko iraupena izanen du eta lur-ematea eta hobotik ateratzeaz arduratuko dira, "Grupo Tanatorio Irache"ko kide den enpresa hone-tako langileak.

Iñurrista industrialdea

Iñurristako industrialdean, Leitza Lantzen elkarteko jabetza duenak, 4.000 metro ko-



San Juan bezpera

Arratsaldeko gazte eta umeen ingurutxo saio bikainaren ondoren, 1000 lagun baino gehiago bildu zen herriko plazan afaltzeko asmotan. Mokadua ahora sartu orduko euri ttantta solte zirenak ugaritu eta bakoitzak soluzio-bideren bat aurkitzeko bidean jarri zuen; "sonbrilak" eta plastiko handiak, mahaiak mahai gainean... irudimena nagusi, hala ere karrapetik kanpo zeudenak "ederki busti". Ondoren sua izan zen protagonista.

adro salgai jarri ditu. Hauetatik 3.200 eraiki-garriak dira eta beste 800ak ez. Lizitazio prezioa 492.830 €koa da, BEZa barne.

Mendi irteera

Tendeñera mendira dozenaren bat lagunek egin duten irteerarekin, "oporak" hartzen ditu mendi taldeak hurren-

go bi hilabeteetan. Iraillean, mendiarekin lotuta dauden jarduerak antolatuko dituzte eta jende gehiagoren parte hartzea espero dute.

BAZTAN

Azpilkuetako Sanferminak
uztailaren 4tik 7ra

Ortzileria 4

Mezpera Egune

12:00etan txupinazoa beste hasiera emateko.

16:00etan pilota txapelketako lehen finalerdia. **21:30etan** Herri-Arte elkartearen Baztan zopak Joxe Angelek alaituta. Ondotik, goizalderarte dantzaldia JOXE ANGELEkin plazan.

Larunbeta 5

Haurren Egune

10:00etan dianak herriko karriketan barna.

12:00etan pilota txapelketako bigarren finalerdia. **16:00etan** herriko elkartearen mus oinezture txapelketa. Ondoren, sari banaketa.

17:00etan herriko eta kanpotik etorritako haurrentzat txokolatada eta haur jokoak. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia herriko plazan TRIKI-DANTZ taldearen eskutik. **00:30etatik 5:00etara** gaupasa TRIKI-DANTZ taldearekin.

Igenda 6

Pilotaren Egune

10:00etan dianak herri-



Abilidade gordeak argitara ateratzeko egunak izaten dira bestak. Azpilkuetako honek oinekin platerak garbitzeko duen trebezia ikusi bertzenaz!

ko karrikatik barna.

11:30etan Meza Nagusia San Andres elizan.

12:30etan pilota txapelketako final handia! Ondotik sari banaketa eta «txaloak» parte hartzaile guztientzat. **18:00etan** kantaldia. **21:00etan** ezkil jotzea.

Arratsaldeaz-gauetz dantzaldia **Frantziskorekin**.

Astelehena 7

San Fermin egune

10:00etan dianak. Ordu berean lehenago jeitaki direnentzat gosaria. **11:00etan** Meza Fermin Sainduaren omenez.

Ondoren luntxa herriko elkartearen. **14:30etan** zikiro jatea plazan, Joxe Angelek alaituta. **18:00etan** txanpain-kopalasterketa. **21:00etan** afaria frontoian. Afal ondoren azken dantzaldia Joxe Angelekin eta indarrak akitzean «Gaixoa

Lekarozko
institutuko
ikasleak
sarituak

Nafarroako Gobenuko Hezkuntza Departamenduko Euskara Zerbitzuak antolatutako lehiaketetan Lekaroz Bigarren Hezkuntza Institutuko ikasle batzuk sarituak suertatu dira. Dialektologia eta Etnologia lehiaketan, erraterako, Gabriel Garmendia Migeltorena eta Lurdes Elizegi Urrutiak lehendabiziko saria eskuratu dute, «Ameriketako bizimodua» lanarengatik. Lehiaketa honetan bertze bi bigarren sari eskuratu dituzte Unai Jauregi Rekalde eta Naxara Meoki Iturriak «Aitzekungo bizie» lanarengatik alde batek, eta Maider Atxa Agirre eta Itziar Iantzi Irungarai ikasleek «Kostunbriak» lanarengatik, bertzetik.

Literaturari dagokionez, ipuin lehiaketan lehendabiziko saria eskuratu du Naxara Meoki iturriak «Bizitzaren joan-etorriak» ipuinarengatik eta bigarren saria Gabriel Garmendia Migeltorenak «Azken gudaria» ipuinarengatik.

onegin
Herbodieterika Ekodenda

- ZERBITZUAK:
- DIETISTA
- NATURISTA
- PRODUKTU EKOLOGIKO
- PRODUKTU NATURALAK
- PRODUKTU ARTISAUAK

Julene Urrutia, 24, Ibañeta • ELIZONDO
748 541 832

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

DAGUIRE
arkitektura

OBRA
PROIEKTUAK

Etxe berriak
eraikitzeko

Birmoldaketak

Aktibitateak

Hirigintza

649 95 94 14

NAFARRORAN ETA GIPUZKOAN

Carlos
Garaikoetxea
Etxenike

abokatua

Aseguru orokorrak

© 948581468 • 948580433

Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • **ELBETE**

BAZTAN

«Hamabortz» kanta eta bideo-klipak iragarriko dute aurten Baztandarren Biltzarra

Berrogeigarren urtea beteko du uztailaren 20an egingen den bestak

ttipi-ttapa

Uztailaren 20an ospatuko da Baztandarren Biltzarraren berrogeigarren edizioa, beti bezala «Eskuarak batzen gaitu» lelopean. Bestaren eta aurten egin den «Hamabortz» diskaren eta bideo-kliparen aurkezpen ekitaldia ekainaren 17an egin zuen Baztandarren Biltzarra elkarteak. Berrogeigarren urteurrena dela eta, hori izanen da berrikuntza nagusia, M-n Ezten taldeko Imanol Goikoetxearen doinua eta Jon Barberena bertsolari elizondarraren hitzak dituen kanta, hain zuzen. Kanta alaia eta dantzagarria da, eta mila kopia argitaratu dituzte. Baztango ostaketuetan eta dendetan salgai dago hiru euroren truke. Bideoa, berriz, NASA produkzio-etxe-

ko Pruaño anaiek egin dute, baina ez da salgai izanen.

EGITARAU ZABALA

Aurtengo egitarauari dagokionez, larunbatean, uztailaren 19an, fanfarreak eta gaitariak ibiliko dira egunez eta gero, Laiotz taldearekin gaupasa izanen da. Igandea izanen da, Baztandarren Biltzarra egun handia. Goizean laxo partida eta eskulan erakusketa izanen dira. Eguerdian, bestari izatera berezia eman dion orga apainduen desfilea abiatuko da. Antolatzaileek herri bakoitzak gutenez orga bat atera dezatela eskatu diete baztandarrei. Herri bazkaria egin aitzin mutil-dantzak izanen dira plazan. Bazkarirako txartelak 15 eurotan salgai paratuko dira.



ARGAZKIA: JOXEMANUEL IRIGOIEN

Ikasturte bukaera aldera eskoletan egin ohi den azken ateraldi horietako bat aprobetxatuz, Erratzuko ikasle, irakasle eta guraso zenbait izan ziren TTIPITAPA bisitatzen ekainaren 13an. Ttikienak eta haundixeagoak bi taldetan banatuta, arretaz entzun zituzten eman zitzaizkien azalpenak, bai telebista zein aldizkaria nola egiten den azaldu baizitzaie eta ikasle aplikatuek egin ohi duten modura. handixkoenak galderaren bat edo bertze



PERTSONAIA Jaione ELIZAGOIEN

Lau baztandarrek parte hartu zuten Irungo Akordeoi Lehiaketan

Baztango akordeoi eskolan ari diren lau neskek parte hartu zuten ekainaren 15ean Irunen egin zen Akordeoi Lehiaketan: Izaskun Aizpuru, Bidane Apezetxea, Josune Berho eta Jaione Elizagoien. Guziek maila ederra erakutsi bazuten ere, Jaione Elizagoienek bigarren saria eskuratu zuen hamabi urte arteko kategorian.



asnap.me
servicio asistido de la persona y su familia

• GIZARTE ETA LAN ARLOA
• KONTABLE-FISKALA
• JURIDIKO-MERKANTILA

• LANGILE AUTONOMOAK
- Garraiolaak
- Elektrizitatea
- Eraikuntza
- Igetseroak...

• NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
• ENPRESA GUZIAK

- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraiola asessoramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inposituak
- Errenta aitortpenak

DOHETAK
Rita Semerari, 4. Solera
Tlfno: 948 451933 Tlfno/Fax: 948 451418
perthelbar@asnapme.com

ELIZONDO
Santiago, 51. Solera
Tlfno/Fax: 948 580 506
elizondo@asnapme.com

BERGARA
Santiago, 1. Solera
Tlfno: 948 261208 Tlfno/Fax: 948 261949
bergara@asnapme.com



BAZTAN FUNERARIA
Mateo Lertxundi

TANATORIO ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO
• 948 580373 • 608 776176

SENPERE

Orma lantegian lana hasi dute berriz txipiroiak ekarri ondoren

Ameztoi erretorrak hartu du Algueiru apezak utzi duen tokia

Franck DOLOSOR

Ibarrungo Lizardia lan zelaian kokatua den Orma lantegian lana hasi zuten berriz erearoen bian, hiru hilabete-ko langabezi teknikoaren ondotik. Emmanuel Lafont Ormako zuzendariak TTIPI-TTAPARI esplikatu dionaz, txipiroia eskastu zen primaderan eta lanik gabe gelditu ziren 65 langileak. Europa guzian problema bera jasaten dute txipiroiak moldatzen dituzten lantegiek. Lana berriz hasirik, Lafont-ek uste du 2003ko hondarra hobeagoa izanen dela baina «ezin da epe luzeko prebisiarik egin, noiz nahi arrain eskasia gerta ditaikelako».

Problema hunen aintzinean Ormako zuzendaritza bere lana zabaltzea eta ekoizpen berriak prestatzea pentsatzen ari da. Berri ona 65 langileentzat, Orma ondoan kokatua zen Yploneko jendeak surte txarragoa izan baitzuen, duela zonbait ur-



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Lehen jaun-hartzea ospatu zuten maiatzaren 25ean gure herriko gazteek.

te lantegi hori betiko hetsi baitzen.

Mugerreko Ameztoi erretorra da Senpereko apez berria

Mugerreko Ameztoi erretorra da Senpereko

apez berria. Ameztoik Algeiru erretorraren tokia hartu du duela egun batzuk Baxenafarroako eliz-gizonak deliberatu baitzuen herria uztea. Bere joateak pena sortu zuen girixtino ainitzen artean baina zorionez Senpere ez da apezik

gabe geldituko mentuan herri ainitzetan gero eta gehiago gertatzen den bezala.

Pilota kontuak

Uztailaren 8an Errebote eta Joko Garbi finalak jokatu dira frontoian 10:30etan eta 15:00etan. Hilaren 9 eta 16an xistera partidak jokatu dira pilota plazan eta 11n pilota ikusgarria Gantxikin.

FLASH

SPUCeko nesken eskubaloia taldea desagertuko da

Nesken eskubaloia taldea desagertuko dela jakitera eman zen SPUC kirol batasunaren azken biltzar nagusian. Txapelketako laugarren kokatu zen ekipa hori baina bertze proiektu batzuk dituzte orain taldeko neskek.

Lerra toki berria ireki da

Lerra toki bat ireki berri da 27 000 euroko lanak egin ondoan. Gaztelu aintzinean inauguratu berri den jolas toki berri hori, herriko etxearen aspaldiko proiektua zen gazteentzat.

Italiako dantzak ikusgai asteburuan

Italiako dantzariak gonbidatu ditu Zirikolatzen eta hango dantzak ikusten ahalko dira herrian asteburuan eta aste hontan. Harremanak azkartzeko gisan, agorri hondarrean, Zirikolatzen gazteek bidai bat egingen dute Italiarat eskual dantzak han ezagutarazteko.

Landibar

ZENTRO KOMERTZIALA
URDAZUBIN



© (0034) 948 599 400 • EGUNERO IREKIA

PIKABEA

harategia • urdaitegia
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

AZKAIN

Elgarrekin errugbi sailak 30 urte bete ditu giro alaian

Bi gazte atxilotu eta aske utzi zituzten egunean berean

Ihintza, Angela eta Eneko

Azkaingo errugbi taldea 1973 sortua izan da eta 30 urtez 8 aldiz "cote basque" eko txapel-dun izan da, bai eta fran-tziako txapel-dun 1989 an, 3. mailan. Gauregun 100 bat jokalariku ditu orotar (40 bat rugbi eskolan) eta gazteenak Senpere, Sara eta Donibane Lohizunekin bat ari dira. Aurten, sasoin hastapena zaila izan da lehen ekiparentzat, baina fase finaletarat arribatzea lortu dute, eta hori esperientzia azkar bat izan da jokalariku eta entrenatzaileentzat.

Ekainaren 22an, taldearen 30. urtemuga ospatu dute. Arratsaldean, lehen ekipa eta jokalariku ohiak aritu dira. Ondoren, Biltzar nagusia egin dute. Hau has-teko, Sahla lehendakariak, Ande Luberriagak idatzitako gutun bat irakurri du, auzapez ohi, taldearen sortzaileeta-

riko bat baitzen. Honez gain hor jakinarazi dute, idazkariak (Garat M.) eta lehen ekiparen 3 entrenatzaileak (Mendiboure B., Albistur JM., Hiribarren J.) beren kargua uzten dutela. Bi entrenatzaile berri dituzte beraz: Desclaux P. eta Meharu PH. Baina jendea eskas dute hala ere, eta laguntzaileak nahi litzukete.

Afaria kiroletan egin da, 300 bat lagunekin, biharamun goiza arte. Gaua Menditarrak taldeak du animatu, baina fite Ttotte Artxania eta bere semeak lekukoa hartu dute, eta kantuz eta dantzaz giroa berotu dute.

Bi gazte atxilotuak

Azkaindar gazte bat eta Azkainen lanean ari den gazte bat atxilotuak izan dira ekainaren 17an, asteartearekin. Biak jendarmeriara ere-



Azkaingo ordezkariak, Lesakako karrikak eta etxeak begiratzen.

manak izan dira galdezketatuak izateko, eta egunean bertan askatuak, haien kontra kargurik atxiki gabe, beren errugabetasuna frogatu baitute.

Egunean bertan Iparralde osoan eremana izan den atxiloteta masibo baten barnean kokatzen da gertakizun hori. Bi azkaindar horiez gain, bertze bortz gazte atxilotu dituzte Lapurdin Le Vert epaileak galdeturik, eta horiek ere segidan libratu dituzte.

Zazpi gazte horiek prentsaurreko batean beren desadostasuna adierazi dute. Diotenez, ez da metodo ona erabiliala izan, konbokazio sinple bat igortzeko orde-z, manara gogorra erabiliala izan baita.

Azkaineren birazkatzeak

Ekainaren 21 eta 22 ko asteburuan, Azkaingo jendea Lesakara gonbidatua izan da.

Larunbatean, Lesakako Herriko Etxeak ondareari buruzko konfrentzia bat antolatua zuen eta hortarako, Elizondo, Iruña, Lesaka, eta Azkaingo hautetsi batzu hitz egitera joan dira. Azkaindik, Larrañaga Marie Laure, Urbi-zondo Marthe, Boucon Bernard, Canjuzan Jean Michel gan ziren, irailaren 20 an iraganen den ondarearen eguna aipatzeko, egun hartan Oion eta Lesaka herriak gonbidatuak izanen baitira. Biharamunean, 60 bat azkaindar Lesakako ondare kulturala ezagu-

tzera gan dira. Lesakakoekin bazkaldu dute, eta Lesaka bisitatzera eramana izan dira.

Proiektu berria

Azkaingo Herriko Etxeak proiektu berri bat badu. Lesakarekin bakarrik birazkatzeko orde-z, nahi luke harreman hau zazpi probintziatarazabaldu. Oion (Ara-ba), Asteasu (Gipuzkoa), Bakio (Bizkaia) eta Lesakarekin (Nafarroa) harremanetan sartu da jadanik. Iparraldean, Xiberua eta Baxe Nafarroatik ez du oraindik herriarik atxeman. Urtero zazpi herrietariku batean egun bat antolatua izanen da. Birazkatze berezi hau heldu den urtetik goiti abiatzeko asmoa dute.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



PIKABEA

Molinero drogerian galdetu *pinturak*

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

SARA

Manex Bergara abertzale eta euskalzalea zendu da 86 urterekin

Sarako Ikastolako besta eginen da uztailaren 13an plazan

Joana eta Saski

1917. urtean sortu zen Sarako Landagaraia etxean Manex Bergara. 1939an, bigarren mundu gerla denboran preso hartua izan da eta ihes egiten du. Gero, Espainiako Miranda de Ebron berriz preso hartua izan da.

Hortik ateratuz Afrikara joaten da indar bateratuekin borrokatzerara. Frantziara sartzean, Paris inguruan Etampes hirian bizi izan da, SNC-Fan eta garaje batean lan eginez. Hor bere familia osatu zuen. Duela 25 urte, bere erretireta hartu eta bere sorlekura itzuli zen, lhalarren Ametsa deitu etxean.

Beti elkarte inguruetan ibili da, batez ere kultur eta euskal elkarteetan. Gainera, zombait urtez Beti Gazte elkartearen lehendakari izan da. Afizione haundia zuen bertso idatzietan eta egur zizelkatzen alderdi haundia zuen.

Manex abertzalea zen, ezker alderdikoa.



Manex Bergara, Pettan Elizalde bere lagunarekin.

ARGAZKIA: SASKI

Min haundia hartzen zuen ikusiz zer eraso jasaten zuen Euskal Herriak, bereziki garai honetan. Euskal Herriaren eraikuntza berak daukan lurralde osoan ikusten zuen, Ebrotik Aturriraino: «Gauza ageria» hain ongi erraten zuen bezala.

Gazteen partetik, milesker euskararen, kulturaren, presoen, gazteen eta herriaren alde egin duzun guziarentzat!

Herria (2001-01-31)

*Herria bi pusketan, Iparra, Hegoa,
Ezin ongi ulertuz dabilkat gogoa
Dakigunez dena bat, zela lehengoa
Nola ditake arrotz, hemen hemengoa
Erantzun bilatzea bakotxari doa.*

*Arbaso beren ume, gutarrak euskaldun
Ziren, gare, izanen, bihar nola egun
Aberri bat bakarra, ditaken ta dugun
Anai arreba kide, ahide ta lagun
Bi aldeak gureak, batera detzagun.*

*Gauzak horren aldrebes nondik eta nola
Jakin behar ginuke ditazken ba hola
Gezur eta aitzaki, beldur disimola
Zikindua daukagu Euskal zeru zola*

Ikastolako besta uztailaren 13an

Uztailaren 13an, igandearekin, Sarako ikastolako besta eginen da plazan. 11:00etan pilota partida izanen da esku huska, Sarako trikitilariak alaiturik. 12:00etan aperitifa trikitilari, gaitero eta Ezpela taldeak alaiturik. Ordu berean, ikastolako haurren kantaldi ttikia, Pantxika Solorzano eta Jean Marc Halsouetekin. 13:00etan bazkaria izanen da. Txartelak salgai daude uztailaren 12a arte Herriko Etxeko edantegian, Pleka trinketea eta Pradere okindegian (helduak 19€, haurrak 4 €). Arratsaldean, «ikastolando» joku puzgarriak izanen dira. 18:00etatik 21:00etara dantzaldia eta Mutxiokoak, Ezpela taldeak alaiturik eta 19:00etatik 21:00etara, talo, xingar eta izozkiak. Animazio egun hau burusoek antolatua da, Sarako ikastolaren alde.

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

ehnelur
euskal herriko nekazarrien elkartasuna
Mota guztietako gasolioa
Baserrietarako

Mikel 606 340630

OKANE
HARATEGIA
URDAITEGIA
Kanttonberri 4
Tfnoa: 948630018
BERA

616 513 491
Pitti
ESKABAZIOAK
C/Amelia 1
30700 DONOSTIA (NAFARRA)

LEHIAKETAK

Literatur lehiaketetan hainbat sari eskuratu dituzte eskualdeko ikasleek

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamenduak antolatutako euskarazko literatur eta dialektologia eta etnologia lehiaketan sariak banatu ziren ekainaren 24an Iruñean. Horretaz gain, Pedro Diez de Ultzurrun irakurketa eta deklamazio sariak ere banatu ziren. Guzira 700 idazlan aurkeztu dira lehiaketa hauetara eta urtero bezala, sari aunitz inguru honetara etorri dira.

Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan, Ipuin lehiaketan lehen saria Goizuetako Andres Nabarte Xalto eskolako Xumar Bakero Olaizola-arentzat izan da «Maria

eta Eneko» ipuinaren-
gatik. Bigarren saria ere Goizuetara joan zen, Anxo Albisu Sanchezen «Gnomoak eta Julen» lanarengatik. Narratiba lehiaketan, lehen saria Leitzako Erleta ikastetxeko Jenny Olano Zabaletarentzat izan zen, «Pitxitxi antxumea» idazlanarengatik. Hirugarren saria, Berako Labiaga ikastolako Maddalen Jimenez Andresek eskuratu zuen, «Animalien mundua» lanarengatik.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan, Ipuin lehiaketako lehendabiziko saria Arantzako eskolako Aitziber Lizardi Mutuberiak lortu du, «Arruzpi-



San Juan egunean Iruñean jaso zituzten sariak literatur lehiaketa ezberdinetan saritutako ikasleek.

ko sorginak» ipuinarekin. Narratiba lehiaketan lehendabiziko saria, Goizuetako Lorentxo Zabala Goizuetak lortu du, «Nire biziko hilabeterik txarrenaren kronika» izeneko lanarekin. Bigarren saria, Leitzako Amazabal institutuko Garazi Zabaleta Urkiolaren «Zoriontsuizateko bidai luzea» idazlanak erdietsi zuen.

DBHko bigarren zikloan, Ipuin lehiaketako lehendabiziko eta bigarren sariak Lekarozko institutura joan dira. Lehenbizikoa Naxara Meoki Iturriaren «Bizitzaren joan-etorriak» lanak eskuratu du eta biga-

rena Gabriel Garmendia Migeltorenaren «Azken Gudaria» lanak.

Dialektologia eta etnologia lehiaketan sari guztiak eskualdera etorri dira.

DBHko lehen zikloan, lehen saria Leire Mitxelena Gamio eta Aitziber Lizardi Mutuberiak eskuratu dute, «Arantzako dendak, orain dela 50 urte» lanarekin. Bigarren saria, Goizuetako Bianditz Nabarte Eskudero lortu du, «Baserriko bizimodua» lanarekin.

DBHko bigarren zikloan, Leitzako Amazabal institutuko Joanes Lizarraga Olanok esku-

ratu du lehen saria, «Auzolana» lanarekin. Bigarren saria Lekarozko Institutuko Unai Jauregik Rekaldek erdietsi du, «Aitzekungo bizie» lanarekin.

Batxilergoan, azkenik, lehenbiziko saria Lekarozko Institutuko Gabriel Garmendia Migeltorenak lortu du «Ameriketako bizimodua» lanarekin eta bigarrena institutu bereko Maider Atxa Agirrek, «Kostunbriak» lanarekin.

Pedro Diez de Ultzurrun irakurketa eta deklamazio lehiaketan, Leitzako Erleta eskolako taldeak bigarren saria eskuratu du.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tinoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

KAPRITXO
Arropa
eta opari
denda
© 649 450249 • LEITZA

**MENDI
OSTATUA**

Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Okidegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIAN
• Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEAN
• Menua eta karta (asteburuetan)
• Especialitate parrilan erretako jakietan

Elkarrekin gozatu, elkarrekin gozatu, gozatu gozatu!

Ordoki Industrialdea • Tinoa: 948 45 34 03 • 31713 ARIZKUN



EZKONTZAK

Manuel Lizardi Arrijuria eta **Miren Josune Ursuegi Soule**, Elizondokoak, ekainaren 7an.

Tomas Barrenetxe Agerrebere eta **Ana Obregozo Istilart**, Aniz eta Iuritakoa, ekainaren 7an.

Ruben Ziganda Sanz eta **Rosa Maria Sobrino Marisko**, Elizondokoak, ekainaren 14an.

Jose Maria Castaño del Salto eta **Amelia Larrañeta Lopez**, Donostia eta Irungoa Beran, ekainaren 17an.

Jose Luis Pagola Etxebeste eta **Emilia Lopez Urtizberea**, Bera eta Lesakakoa, ekainaren 14an.

Juan Luis Iratzoki Altzuguren eta **Maria Telletxea Zozaia**, Bera eta Lesakakoa, ekainaren 14an.

Martin Telletxea Iparragirre eta **Eduarne Sarratea Oteiza**, Igantzi eta Gaztelukoa, ekainaren 14an.

Salvador Etxeberria Busto eta **Maria Esther Etxeberria Goñi**, Iruña eta Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 3an.



SORTZEAK

Saioa Etxart Etxeberria, Erratzukoa, ekainaren 5ean.

Eñaut Goikoetxea Sagastibeltza, Leitzakoa, ekainaren 10ean.

Enaut eta **Aritza Craamer Lizarraga**, Leitzakoa, ekainaren 9an.

Markel Oiartzabal Elgorriaga, Berakoa, ekainaren 10ean.

Aimar Etxeberria Bravo, Berakoa, ekainaren 11n.

Ane Agirretxe Bikondoa, Lesakakoa, ekainaren 18an.

Olatz Mutuberria Mindegia, Doneztebekoa, ekainaren 8an.



HERIOTZAK

Miguel Francisco Gerardo Bardot Lauragarai, Narbartekoa Elbeten, ekainaren 16an, 74 urte.

Aurelia Iturralde Pedroarena, Elizondon, ekainaren 16an, 97 urte.

Asensio Perurena Oiartzabal, Goizuetakoa, ekainaren 11n, 80 urte.

Felicitas Habans Mitxelena, Lesakakoa, ekainaren 14an, 87 urte.

Maria Etxepare Madariaga, Lesakakoa, ekainaren 20an, 87 urte.

Manex Bergara, Sarakoa, ekainaren 23an, 86 urte.



Eskela eta eskertzak
948 631188

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapara** igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.



TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta Zugarramurdin

24 orduko zerbitzua tanatorioan
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704

SOULE

Hileta artea

☎ 948 453444 • 629 659583

ARIZKUN

Zure
publizitatea
ttipi-ttapan

Tel. 948 63 11 88

Fax 948 63 12 91

kulturkari@euskalnet.net

HERRI KIROLA

Donato Larretxeak bakarka ere Urrezko Aizkora irabazi du

Olasagastik ezin izan zuen lana akautu, ekainaren 22an Azpeitian jokaturako finalean

A.A.

Donato Larretxeak bigarren urtez irabazi zuen Urrezko Aizkora, ekainaren 22an, Azpeitian. Uste baino jende guttiago bildu zen finala ikustera, 400 ikusle inguru. Aizkolarari bakoi-tzak bi 45 ontzako, lau kanaerdiko, lau 60 ontzako eta bi oinbiko moztu behar zituen. Azkenean, Larretxea txapel-dun, baina ustegabeko bukaera izan zuen, Olasagastik ezin izan baitzituen lanak akautu.

Beroa ikusita, eta ja-kinda bi aizkolariek sekulako erritmoarekin ekinen ziotela finalari, batek baino gehiagok iragarri zuen saioa hasi aitzin bietakoren batek ez zuela akautuko, eta ho-

abiadurarekin ekin zioten finalari, eta lehen enborrean segundo bakar bat aitzinetik jarri zen Larretxea. Bigarrenean, Olasagastik aurre hartu zuen, eta lau segundo kendu zizkion. Hirugarrenean, bertze lau segundo gehiago kendu zizkion Igeldokoak Arantzakoari, baina lau-garren enborrean Larretxeak aldea murriztu eta lau segundora jarri zen. Ordura arte ikusitakoa parekatua zen, baina ikusten zen bietakoren batek arazoak izan zitzaizkela, zaila baitzen ordura arteko erritmoari segitzea.

Bosgarren enborra oinbikoa zen, eta hor hasi zen Olasagastiren gurutze bidea. Aitzinetik

hartu eta 20 segundo kendu zizkion.

Lehen zatiko azken enborrean, hamaika segundo aurretik akautu zuen Larretxeak, baina bigarren zatiko lehen enborrean Olasagasti bera aurretik hasi zen. Kanpotik begiratuta, Larretxeari arazo gehiago ikusten zitzaizkion Olasagastiri baino.

Bigarren zatiko lehen enborra, zazpigarrena, Olasagastik borts segundo aurretik bota zuen, baina zortzigarrenean, Larretxeak aurre hartu eta hamabi segundo kendu zizkion. Hortxe akautu zen norgehiagoka. Olasagastik bere enborra moztu zue-nean, buruarekin ezetz egiten zuen, ezin zuela segitu, eta eseri egin zen. Minutu pare bat egon ondotik, berriro ere enbor gainera igo, hiru kolpe jo, eta jautsi egin



ARGAZKIA: GARA

Olasagasti lanak akautu ezinik eta Donato Larretxea azken enborretan. Beroak eragin ikaragarria izan zuen Urrezko Aizkoraren finalean.

zen, zorabioak zirela eta ezin baitzuen segitu.

Larretxeak bazekien txapela janzteko lanak akautzea nahiko zuela, bera ere nahiko beteta baitzegoen, eta aurretik bertze hiru enbor gel-

ditzen zitzaizkion. Lasai-lasai hartu zituen bere lanak, kontrariorik ez. Azkenean, akautu zituen egin beharreko guztiak, eta iaz lortutako txapelari eutsi egin zion.



Donato LARRETXEA Txapelduna

“Beroa kontuan hartu gabe, aurea hartzeko dena eman dugu haseran”

Beroak eragin handia izan du aurtengo finalean. Zu hobekiago prestatua zinela erraten ahal da?

Nik uste Olasagasti hagitz ongi prestatua zegoela. Gainera ni, nire kiloekin, ez naiz ongi moldatzen beroarekin. Erritmo izugarrian hasi gara lanean, beti aurea hartzea garrantzitsua delakoz. Beroa kontuan hartu gabe, dena eman dugu haseran. Ni arront juxto nenbilen, baina banekien bera ere berdintsu zebile-

la. Jautsi dela ikusi denean poztu naiz eta lasai akautu dut nire lana.

Banaka nahiz binaka Urrezko Aizkora irabazi duzu. Urrezko aizkolaria deitu beharko dizugu...

Izena horrela dute eta hala izanen da. Orain Urrezko Kopa gelditzen da Donostian eta hortarako ere prestatuko gara. Pena baldin bada ere, Euskal Herriko txapelketa irabazita baino sari handiagoa duzu Urrezko Aizkoran bigarren izanda.

DATUAK...

- Otsailaren 1ean hogeitun bete zituen Iñaki Eskudero, Eratsungo atzelariak. 1,84 metroko altuera eta 88 kiloko pisua du.
- Asegarcek lau urteko kontratua eskaini dio profesionaletan. Debuta uztailan egingen duela uste du Eskudero.
- Afizionatuetako azken txapela irabazi zuen Baztanekin, Belatek antolatutako Herriarte txapelketa. Nafarroa nahiz Euskal Herriko txapelak izan da azken hiru urteetan Eskudero herriartearen, kategoria ezberdinetan.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Iñaki ESKUDERO *Eratsungo pilotaria*

«Lau urteotan ikasi egin behar dut, lehen mailan aritzeko esperantzarekin»

Aitor AROTZENA

Pilotazale eta pilotari herria da Eratsun, dudarik ez. Zerbaitegatik ezaguna baldin bada herria, bertan sortu diren pilotariengatik izan da. Rete-gi lehenak eskuz banakako sei txapel jantzi zituen eta Julian Rete-gik, manimanistako hameka txapelez gain, bortz eskuratu zituen binaka eta lau laurterdian. Ez da Euskal Herrian hainbertze txapel dituen bertze herririk. Baina, Rete-gi II.a erretiratu ondotik, ez da pentsatu behar pilota Eratsunen iraganeko kontua dela. Gauegun, bi pilotari profesional ari dira kantxetan, Josu Baleztena eta Jexux Rete-gi, Rete-gi VI. Bi aurrelari hauei, hirugarren bat gehituko zaie abudo xamar, Iñaki Eskudero, profesionaletan izanen den lehen atzelari eratsundarra. Hogeitun bete zituen otsailaren 1ean eta Asegarcek lau urteko kontratu profesionala eskaini dio. «Joan den urteko urritik entrenatzen ari ginen Asegarcekin eta espero genuen laister ailegatu zitekeela deia».

Beloki da gaur egun atzelaririk onena. Jotzaile ikaragarria da eta ez du pilotarik galtzen. Aurrelariak, berriz, aukera izan orduko tantua bukatzen dutenak gustatzen zaizkit.

Gazte eta afizonatu mailan hainbat txapel irabazitakoa da Eskudero. «Jubeniletan Usurbilgo txapelketa eta binaka Café Baque saria irabazi nituen. Afizonatutan urte bakarra egin dut eta hiruzpalau txapel irabazi ditut, lehenbiziko urtea izateko ongi». Azkenekoa Baztanekin eskuratu du Belatek antolatutako herriarte txapelketa irabazi baitu Leitzaren kontra.

«LAU TERDIA ETA BANAKA ARITZEKO PISU HANDI XAMARRA DUT»

Bere burua pilotari jotzailetzat du eratsundarrak: «Galdutako errex eginen dut, baina hori ikasten omen da, ikusiko

dugu. Segurtasuna hartzen joatea gus-tatuko litzaidake».

